


Euskal AEko industria-prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko azaroan, aurreko hilabetearen aldean

2021eko azaroarekin alderatuta, industria-prezioek % 17,8 egin dute gora

Euskal AEko industria-prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko azaroan, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Azaroko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 17,8koa da.

Analisi xehatuago batek agerian uzten du 2022ko azaroan jaitsiera nabarmenenak erregistratu dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 9,6ko jaitsiera); *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 5,8koa), eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 2,3koa). Prezioetan hilen arteko hazkuntzak izan dituzten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,2ko igoera), *Erauzketa-industriak* (% 2,9) eta *Produktu farmazeutikoen fabrikazioa* (% 2,7koa).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helmuga ekonomikoko ondasunen sailkapenari jarraikiz, *Kontsumo-ondasunen* prezioen aldakuntza, 2022ko urriarekin alderatuta, % 0,7koa izan da, % 0,8ko igoera egon baita *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* eta % 0,3koa *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan*. *Energiaren* prezioek, berriz, % 8,1 egin dute behera, *Tarteko ondasunenek*, % 1,0 eta, azkenik, *Ekipo-ondasunenetan*, prezioek % 0,4 egin dute behera.

Urte arteko terminoetan, 2022ko azaroan, 2021eko azaroaren aldean, prezioen igoera handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 44,6), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 29,0) eta *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 26,3ko igoera).

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren arabera ondasun-talde handi guztietan. *Energiaren* prezioek % 38,1 egin dute gora, *Tarteko ondasunenek*, % 15,7 eta *Kontsumo ondasunenek*, % 12,7, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 13,9 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 5,1 igo direlako. Azkenik, *Ekipo-ondasunek* prezioetan urte artean % 2,7 egin dute gora.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	134,1	-2,7	17,8
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	117,0	2,9	12,8
Manufaktura-industria	128,7	-2,1	13,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	125,1	0,5	15,0
Ehngintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	113,2	4,2	8,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	142,5	1,3	26,3
Kokeak eta petrolio-fintzen	164,1	-9,6	29,0
Industria kimikoa	152,0	-0,9	22,9
Botiken fabrikazioa	125,4	2,7	1,8
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	110,8	0,5	9,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,2	-2,0	15,5
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	114,6	-2,3	-0,2
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	113,3	0,4	5,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,7	-0,1	3,6
Garraiorako materialen fabrikazioa	106,8	0,0	0,5
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	113,6	0,2	4,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	167,1	-5,8	44,6
Ura	121,9	-0,9	8,7
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	123,8	0,7	12,7
Kontsumoondasun iraunkorrak	112,3	0,3	5,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	125,7	0,8	13,9
Ekipo-ondasunak	112,7	-0,4	2,7
Bitarteko ondasunak	131,4	-1,0	15,7
Energia	171,0	-8,1	38,1

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Informazio-oharra

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea lagingaren % **93,12**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62